

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

2015eko kontu orokorra jendaurrean jartzea

Nik, Josune Irabien Marigortak, Amurrioko (Araba) Udaleko alkate naizen honek,

Jakinarazten dut:

Politika Ekonomikoen eta Funtzio Publikoaren Udal Batzordeak, 2016ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, 2015eko kontu orokorra onartzen duen espedientearen aldeko txostena egin zuen.

Espedientea jendaurrean jarriko da Udaleko Kontuhartzaitetzan, aipatutako txosten horrekin batera, hamabost egunez. Interesdunek epe hori eta zortzi egun gehiago izango dituzte haiek aztertzeko, eta nahi dituzten erreklamazioak, oharrak edo iradokizunak aurkezteko.

Aurkezten diren erreklamazio, ohar edo iradokizunak Politika Ekonomikoen eta Funtzio Publikoaren Udal Batzordeak aztertuko ditu, eta ondoren beste txosten bat emango du.

Geroago, udalbatzari bidaliko zaio kontu orokorra, batzordearen txostenekin eta aurkeztutako erreklamazioekin batera.

Amurrio, 2016ko azaroaren 15a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA